

SABINO ARANA SARIAK. Hilaren 26an banatuko dituzte sariak, Bilboko Arriaga antzokian egingo duten ekitaldian

Nunca Maisen Iana sarituko du aurten Sabino Arana Fundazioak

Galiziako hondamendian herri plataformak izandako jarrera goraiatu du erakundeak

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Sabino Arana Fundazioak sariak banatzen ditu urtero, elkar-teari izena ematen dion politikariaren jaiotza gogora ekartzeko. 1988. urtean hasi zen Sabino Arana sariak ematen, eta aurten, hamalagarren ekitaldia izango da. Gainera, Aranaren jaiotzaren mendeurrena ospatuko dute aurten. Hilaren 26an banatuko ditu sariak, Bilboko Arriaga antzokian, eta atzo irabazleen izenak jakinarazi zituen Fundazioak. *Prestige* petroliotzia hondoratzeak eragindako hondamendia gogoan izan du, aurtengo sari berezia nori eman erabakitzerakoan. Hala, Nunca Mais herri plataformaren lana txalotu gura izan du. Halaber, Jesus Altuna paleontologoa, Alec Reid bakezalea, Josune Bereziartu eta Edurne Pasaban kirolariak, Quiksilver enpresa eta Espainiako Oroimen Historikoaren Berreskurapenerako Elkarteak ere gogoan izan ditu.

Andoni Olabarri Sabino Arana Fundazioko presidentek agertu zuenez, Espainiako eta Galiziako agintarien «utzikeria» salatzeagatik eman diote saria Nunca Mais plataformari: «Ez

horregatik bakarrik. Galiziako elkarteak eta erakundeak batzeko izan duen gaitasunagatik ere saria merezi duela pentsatzen dugu. Bestalde, boluntarioen lana ere kontuan hartzeko modukoa dela uste dugu».

Irlandako bake prozesua gogoan, Alec Reid saria

Halaber, Alec Reid Irlandako apaiz erredeziotarrak jasoko du Munduan Ispilu saria, bere herriko bake prozesuak aurrera egin zezan egindako ahaleginarengatik. IRAk bere lehen sutena iragartzea eragin zuen Downing Street-eko Adierazpenaren sustatzaile nagusietakoa izan zen Reid. «Bake prozesuez behin baino ez du berba egin, eta orduan elkarriketaren alde jo zuen», zehaztu zuen Fundazioko presidentek.

Euskal Herriko kirolari onenetako biren arrakastak ere azpimarratu ditu Fundazioak. Josune Bereziartu eskalatzailak eta Edurne Pasaban mendigoizaleak *ex-aequo* eskuratu dute saria, «gure kirola goi mailara eramateagatik». Historia aztertzeagatik ere sariak jasoko dituzte Jesus Altuna paleontologoa eta Espainiako Oroimen Historikoa Elkarteak.



NUNCA MAIS. Galizian *Prestige* petroliotzia hondoratzeak eragindako hondamendi ekologiko eta sozialaren inguruan agintariak egin dituzten akatsak salatzeako sortutako herri plataforma da. Agintarien utzikeria eta arazoari aurre egiteko dagoen baliabide falta agerian uzteagatik nabarmendu da. Abenduaren 1ean manifestaziora deitu zuen Santiagon, eta 200.000 lagun batu ziren.



ALEC REID. Irlandako bake prozesuak aurrera egiteko lan eskerga egin duen apaiz erredeziotarra da. IRAk su-etena iragartzea ekarri zuen Downing Streeteko Adierazpenaren sustatzaile nagusietakoa izan zen. Belfasteko Clonard komentuan bizi da, gatazkaren gordintasuna ondoen igartzen den lekuetako batean. Elkarriketaren premia nabarmendu du.



JESUS ALTUNA. Aranzadi Zientzia Elkartearen egindako lanarengatik Europa osoan ezagun egin den paleontologoa. Bere arloan erreferentzia da askorentzat. Berastegin jaioa (1932), Gipuzkoako aztarnategietan lan handia egindakoa da. Arkeozoologian doktorea da, eta askotan egin zuen behar Joxe Miel Barandiaranen aginduetara. EHUko irakaslea ere bada.



JOSUNE BEREZIARTU ETA EDURNE PASABAN. Kirolak saria *ex-aequo* irabazi duten kirolari gipuzkoarrak. 9a zailtasuneko bidea gaintzea lortu du aurten Bereziartuk, eta hori egin duen lehenengo emakumea da, eta seigarren gizakia. Pasaban, ostera, Himalayan egin duen lanagatik nabarmendu da. Hiru zortzimilako tontoretara heldu da: Everest, Cho Oyu eta Makalu.

OROIMEN HISTORIKOAREN BERRESKURAPENERAKO ELKARTEA. Espainiako Gerra Zibilaren ondorioak aztertzen dituen elkarteak da. Gerrako fusilatuen hobi komunak bilatzen eta aztertzen egiten du lan batez ere. Euskal Herrian Aranzadi elkartearekin batera elkarlanean aritzen da.

QUIKSILVER. Australiako enpresa izan arren, Euskal Herrian oso errotua dago. Donibane Lohizunen (Lapurdi) dauka Europako egoitza. Surferako arropa eta materiala produzitzen du, baina baita mendiko materiala ere. Ingurumena zaintzen duelako nabarmendu da.

ETXEBIZITZA. Merkataritza lokalak etxe bihurtzeko diru laguntzak ere emango ditu, dagokion herriko udalaren baimena lortuz gero

Jaurlaritzak %5eko laguntzak emango ditu igogailuak eta etxe aurreak zaharberitzeko

Agentziak | BILBO

Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak eskainiko ditu eraikin bateko bizilagunek elkarrekin banatzen dituzten azpiegiturak (etxe aurreak, igogailuak...) zaharberitzeko. Diru laguntzak lanen gastuaren %5ekoak izango dira gutxienez, eta %10ekoak «eremu degradatuetan». Hala adierazi zuen atzo Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza

eta Gizarte Gaietarako sailburuak, etxeak zaharberitzeko urtarrilaren 1etik indarrean dagoen dekretua aurkezteko egindako agerraldian.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak emango ditu merkataritza lokalak etxebizitza bihurtu ahal izateko. Lokalek bi baldintza bete beharko dituzte: gutxienez 36 metro koadro edukitzea eta dagokion udalak baimena ematea.

Dekretu berrian %5 handitu dira etxeak zaharberitzeko diru laguntzak; %10, berriz, familia ugariak direnean edo etxea zaharberitu behar duenak mugitzeko arazoak dituen.

Eusko Jaurlaritzak 4,5 milioi euro aurreikusi ditu laguntza horietarako, baina eskaerak kopuru hori gaintuz gero, diru laguntzen poltsa ere handitu egin dezakete. Iaz 12.000 etxek baliatu zituzten etxeak zaharberitzeko diru laguntzak. Diru laguntza zuzenak eskatzeko eskatzaileak ezin du 21.000 euro baino gehiagoko diru sarrerarik eduki.

Babestutako etxe gehiago izango direla dio Nafarroako Gobernuak

Erredakzioa | IRUÑEA

Heldu den urtean Nafarroan eginen diren babes ofizialeko etxeen kopuruak gora eginen duela aurreratu zuen atzo Nafarroako Gobernuak Etxebizitza kontseilari Javier Markotegik. «Iragarpenak benetan ikusgarriak dira, eta inolako dudarik gabe, errekorra gaintuko da», aipatu zuen kontseilariak.

Iaz babestutako 2.000 etxebizitza egiteko baimenak eman zirela adierazi zuen Nafarroako Gobernuak ordezkariek, eta datorren urtean kopuru hori 3.000ra igotzea espero dutela. «Zenbaki horri aske dauden beste 5.500 etxebizitza gehitu behar zaizkio», gaineratu zuen Markotegik.

Azken urteotako garapena oso ona izan dela adierazi zuen Kontseilariak, eta haren ustez, Nafarroako Gobernuak egiten ari den «politika ausarta» da horren arrazoi nagusia. Moduluaren prezioa igo izana ere positiboa izan dela azpimarratu zuen.